

Etxepare Euskal Institutuak 441.000 euro bideratuko ditu sortzaileen mugikortasuna sustatzeko laguntzetara

- Kultur sektorearen nazioarteko proiektuek eta mugikortasunak egungo testuinguruan dituzten mugak ikusita, arte plastiko eta ikusizko, musika, dantza eta antzerkigintzako dirulaguntza deialdiaren salbuespenezko formulazioa osatu da

- Arte galerientzako dirulaguntzak eta zinema- eta literatura- arloko sortzaileentzako bidaia-poltsak ez dira aldatu: lehenengoak 41.000 euroko zuzkidura du eta 18.000 eurokoa bigarrenak

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak Etxepare Euskal Institutuaren kultur sortzaileen mugikortasunerako dirulaguntzen deialdiak argitaratu ditu gaur, martxoak 18, eta eskaerak egiteko epea bihartik aurrera egongo da zabalik. Bata, arte plastiko eta ikusizko, musika, dantza eta antzerkigintzako sortzaileen mugikortasuna diruz laguntzeko, bestea Euskal Autonomia Erkidegoko arte-galeriei 2021. urtean nazioarte mailako arte azoketan stand-ak edo espazio birtualak alokatzen laguntzeko, eta hirugarrenik, euskararen eremu geografikotik kanpo zinema- eta literatura arloko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko bidaia-poltsena.

Lehenbizikoak, arte plastiko eta ikusizko, musika, dantza eta antzerkigintzako sortzaileen mugikortasunerako deialdiak, berritasunak ditu, egoera berrira moldatzearren burutu direnak. Hasteko, aurrekontua handitu da. Guztira, 382.000 eurokoa izango da, iaz baino 5.000 euro gehiagokoa. Dirulaguntza honen xedea da euskararen eremu geografikotik kanpo euskal kultur eta sormenaren posizionamendua indartu, bere presentzia eta ikusgarritasuna sendotu eta nazioarteko kultur eragileekin saretze lana bultzatzea. 2021ean

Euskal Herritik kanpoko jaialdi edo kultur jarduera zehatzetan (birak, denboraldiak, erakusketak, lehiaketak, ekitaldiak, egonaldi proiektuak) parte hartzeko bidaia-gastuak, muntaketa-gastuak, eszenografia edo materialen garraioa, ostatua eta dietak ordaintzeko izango dira. Deialdi horretara aurkez daitezke hurrengo sektoreetako sortzaileak: arte plastikoak eta ikusizkoak, musika, dantza eta antzerkigintzakoak.

Modalitateka, hurrengoak dira banatuko diren laguntzak: arte plastiko eta ikusizkoek 65.000 euroko laguntza jasoko dute denera; musikagileek, 130.000 eurokoa; dantzan, 55.000 euro banatuko dira; eta antzerkian, aldiz, 132.000 euro jasoko dituzte eskatzaileek guztira. Ordainketaren erdia hasieran jasoko dute, eta beste erdia, zuriketa egin ondoren. Hilabeteko epea izango da zuriketa horiek egiteko.

Aurtengo deialdiak izango dituen berritasunekin jarraituz, deialdia automatizatu da, prozedura azkartu eta sinpletzea helburu. Honek esan nahi du baldintzak betetzen dituzten guztiek dirulaguntza jasoko dutela. Ez da balorazio batzorderik egongo.

Gainera, kanpora joaten denari erraztasunak emateko, nahikoa izango da Euskal Herritik kanpo emanaldi edo jarduera bat izatea.

Eskaerak aurkezteko bi epe izango dira. Lehenengoa maiatzaren 30a arte egongo da zabalik, eta urtarrila-ekaina arteko jarduerak hartzen ditu. Bigarrena uztailaren 1etik urriaren 30era egongo da zabalik, eta uztailetik abendura burutuko diren jarduerak laguntzera dator.

Bestalde, beste bi deialdietan ez da aldaketarik egon: Euskadiko arte-galeriei 2021. urtean nazioarte mailako arte azoketan stand-ak edo espazio birtualak alokatzeko dirulaguntzak 41.000 euroko zuzkidura du guztira. ARCO azokara aurkezteko hilabeteko epea izango da, eta beste azoketarako epea irailaren 3ra bitarte egongo da zabalik. Zinema- eta literaturaaroko sortzaileak eta eragileak nazioartekotzeko bidaia-politsetarako dirulaguntzen deialdia 18.000 eurokoa izango da, eta horretara, urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke bihartik aurrera.

Puntuazio irizpide eta prozedurak

Arte plastikoak eta ikusizkoak, musika, dantza eta antzerkigintzako mugikortasunerako dirulaguntzen deialdia lehiarik gabekoa izan arren, eskaera bakoitzari dagokion kopurua nolabait zehaztu beharra dago, eta horregatik, aurreko urteetako deialdietan erabiltzen diren balorazio irizpideak oinarri hartuta, subjektiboak izan zitezkeen edo adituen iritzia behar zezaketen atalak kendu, eta Institutuak bilatzen dituen helburuen arabera puntuatu beharrekoak iruditzen zaizkion atalak mantendu eta egoera berrira moldatu dira, jakinik helburu nagusia dela oinarrizko baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak laguntzea.

Gauzak horrela, honakoak izango dira dirulaguntzen kopuruak zehazteko irizpide-ardatzak: euskararen presentzia proiektuan, genero irizpidea, proiektuaren autofinantzaketa maila, eskatzailearen ibilbide profesionala eta eskatzailearen presentzia digitala.

Dirulaguntza hauek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan errolda edo egoitza soziala duten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte. Gainera, zabaldu nahi den lanaren komunikazio-hitza euskara den kasuan, sozietate-egoitza edo helbidea euskararen eremu geografikoan kokatuta duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, egoitza Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian dutenak ere bai.

Pertsona juridikoak behartuta egongo dira eskabidea modu elektronikoan egitera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez. Pertsona fisikoek, aldiz, eskabidea aurrez aurre egiteko aukera ere izango dute. Deialdi bakoitzaren xehetasunak www.etxepare.eus webguneko 'Deialdiak' atalean edota Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aurki daitezke.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus